2024eko Azaroa

# INFO

## Irakaskuntza Heziketa berezia

## Lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaileak

## LABek positiboki baloratzen du 2024ko azaroaren 15ean Hezkuntza sailak bidali digun hitzarmenaren azken proposamena.

## LABek 2023ko ekainaren 1ean Akordio Laboralean sinatutakoak eta gerora eskatutakoak jasotzen ditu

| Indarrean dugun lan hitzarmena | Hezkuntza sailaren behin betiko proposamena (24-11-15) |
|---|---|
| **Soldata**<br>HLE, ZHI eta Traskribatzaileak 31.239,71 € urtean | **Soldata**<br>HLE, ZHI eta Traskribatzaileak 35.735,55 € urtean. %14,4ko igoera |
| **Lanaldia**<br>• Urteko lanaldia 1480 ordu<br>• HLE asteko lanaldia 37,5 ordu<br>» 30 ordu arreta zuzena<br>» 2,5 ordu osagarriak<br>» 5 ordu bazkaltzeko (jangela egiten bada)<br>• OT eta fisioen asteko lanaldia<br>» 23 arreta zuzena<br>» 7 ordu osagarriak<br><br>**Lanaldiari lotutako beste alor batzuk**<br>Jarduna jarraia edo goiz eta arratsaldekoa eskolako ordutegiari lotuta<br>HLEentzat bazkaria bai (jangela egitekotan)<br>HLE eta ZHIentzat irteeretan gaua igarotzea hautazkoa (ebazpenarekin galtzeko aukera)<br>OT eta fisioentzat lanaldia irakasleen antzekoa | **Lanaldia**<br>• Urteko lanaldia 1462 ordu<br>• HLE, ZHI asteko lanaldia 35 ordu / 30 ordu ikastetxean<br>» 25 ordu arreta zuzena<br>» 5 ordu osagarriak<br>» 5 ordu ikastetxean permanentziarik gabekoak<br>• OT eta Fisioen asteko lanaldia 35 ordu / 30 ordu ikastetxean edo lan zentroan<br>» 23 arreta zuzena<br>» 7 ordu osagarriak<br>• Transkribatzaileen eta Gizarte Langileen lanaldia 35 ordu / 30 lan zentroan<br><br>**Lanaldiari lotutako beste alor batzuk**<br>- Lanaldia ikastetxe bakoitzeko eskola-egutegia betetzera egokituko da. Lanaldia irailaren 1etik uztailaren 31ra bitartean banatuko da<br>- Uztaila eskolarik gabeko epealdia izango da eta administrazioaren esanetara egongo gara.<br>- Lanaldi osoan jarduna jarraia edo goiz eta arratsaldekoa kolektibo guztientzat.<br>- Lanaldi erdian jardun jarraia kolektibo guztientzat.<br>- 30 minutuko atsedena hartzeko aukera, jardunaldi jarraia egiten dutenen kasuan.<br>- Kurtso hasierako jarraibideetan zehaztuko da ikastetxeak antolatutako jarduera osagarrietan laguntzeko beharra.<br>- OT eta fisioen egutegia ikastetxe batena<br>- Lanak eragindako joan-etorriak arreta zuzeneko denboratzat hartzea.<br>- Fisioterapiako espezialistek eta Okupazio Terapeutak lanaldia berritzegunean hasi eta bukatuko dute. Jardunaldia hasi edo bukatu beharreko zentroa euren bizilekutik gertuago badago horretan hasi edo bukatuko dute. |
| **Plantillak**<br>Plantillak esleitzeko irizpideak ez dira negoziatzen<br>Lanpostuak guztiak mantentzeko konpromisorik ez<br>Behin behinekotasun tasan mugarik ez (%65eko tasa)<br>LEP eredua ez da negoziatzen<br><br>**Kontratazioa**<br>Ekoizpen kontratuak 6 hilabetekoak gehienez<br>Bakanteak jardun erditik osora pasatzeko aukerarik ez | **Plantillak**<br>- Plantillak esleitzeko irizpideak negoziatuko dira 24/25eko hirugarren hiruhilekoan.<br>- Lanpostu guztiak mantentzeko konpromisoa<br>- Behin behinekotasun tasa %5etik behera<br>- LEP eredua negoziatzen da eta 3 urtetik behin egingo da<br>- Egun dauden jardun erdiko lanpostuak oso bihurtzeko plan bat negoziatu eta adostea<br>**Kontratazioa**<br>- Ekoizpen kontratuak 10 hilabetekoak gehienez<br>- Bakanteak ikasturtean zehar jardun erditik osora pasa daitezke, betetzen duen pertsonak eskubidea izango du osora pasatzeko. |
| **Ibiltaritzagatiko konpentsazioa**<br>Lanak eragindа egun berean 2 kilometro baino gehiago kalte-ordaina | **Ibiltaritzagatiko konpentsazioa**<br>- Joan-etorriak lanagatik egiten direnean, ordainketei buruzko araudi orokorrean jasotako irizpideen arabera ordainduko da. |
| **Oporrak**<br>Uztailaren bigarren hamabostaldia eta abuztua: 33 lanegun edo 45 egun / 30 egun berreskuragarri | **Oporrak**<br>- Abuztua: 22 lanegun edo 30 egun / 30 egun berreskuragarri (funtzio publiko osoan bezala). |
| **Lizentzia eta baimenak**<br>Gurasotasun lizentzia 18 aste<br>Edoskitzea jardun osoan 24 egun<br>Antzinatasunagatik baimen egunik ez<br>Norbere haurrak medikuarenera laguntzeko baimenik ez<br>Adinagatiko murrizketa | **Lizentzia eta baimenak**<br>- Gurasotasun lizentzia 18 aste. 20 aste jarraian hartuz gero<br>- Edoskitzea jardun osoan 28 egun. Erdian 48 (jardunaren arabera taula dago).<br>- Antzinatasunagatik baimen egunak<br>- Norbere haurrak medikuarenera laguntzeko baimena.<br>- Batzorde Paritarioan adinagatiko murrizketak negoziatuko dira. Bitartean gaur egun indarrean daudenak aplikatuko dira. |
| **Funtzioak**<br>Menpekotasun hizkuntza | **Funtzioak**<br>Funtzioak (Klikatu hemen) *https://hodeia.lab.eus/s/HCzyAbCobddjGBR*<br>- Menpekotasun hizkuntzarik ez<br>- Kolektibo guztietan hobekuntzak<br>- Klaustroetan parte hartzea mugekin |
| **Atxikipena**<br>Berritzegunera | **Atxikipena**<br>- Ikastetxera batzuk / lurralde ordezkaritzetara besteak. Esleipen irizpideak negoziatuko dira.<br>- Berresleitzeak lurralde historiko berean izango direla lehenesten da eta 25km baino gehiagora ez egotea |
| **Berme klausulak**<br>Lizentzia eta baimenetan irakasleen hobekuntzak aplikatzen dira zuzenean | **Berme klausulak**<br>- Lizentzia, baimenak, nomina aurrerakinak,....irakasleetan hobetuz gero aplikatzen dira zuzenean. Gainontzekoak mahai parekidean negoziatu eta adostuko dira. |
| **Ordezkoen araudia**<br>Egun ordezkoen araudia ez dago lan hitzarmenean<br>165 egun lan eginez gero hobekuntzarik ez | **Ordezkoen araudia**<br>- 165 egun lan eginez gero konpentsazio ekonomikoa eta hautagaien zerrendan puntuazioa<br>- Ordezkoen araudia negoziatzeko egutegia lan hitzarmena sinatzerakoan. |
| **Titulazioak**<br>ZHIetan gradurik ez eta komunikazio bitartekariak bai | **Titulazioak**<br>- ZHIetan gradua eskakizunetan txertatu<br>- C1 kategoria guztietan. |

**Lan hitzarmena sinatzeko gehiengo sindikalaren sinadura ezinbestekoa da. Mahaia negoziatzailearen deialdiaren zain gaude!**


heziketaberezia@lab.eus
heziketabereziaaraba@lab.eus
heziketabereziabizkaia@lab.eus
heziketabereziagipuzkoa@lab.eus
heziketabereziagipuzkoa1@lab.eus


1974 - 2024 • ZABALTZEN

Banatuz eraldatu!

etxera